



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Ginzburgen zartadak

Londres «ireki» zutenean egin nuen lehenengoko gauzetako bat Marylebone auzoan dagoen Daunt Books liburu dendara joatea izan zen. Jatorriz antigoalekoen merkataritaren saltokia izandakoa, eduardotar garai-ko arkitektura ezaugarri asko oraindik bere horretan mantentzen ditu. Neurrira egindako lehenengo liburu denda izan zela esaten da. Liburuak geografikoki sailkatuta daude, kontinente eta lurraldeen izenekin apalak etiketatuz.

Han aurkitu nituen Natalia Ginzburg idazle italiarra-
ren hainbat liburu lehenengo aldiz azken bisita horretan,
liburu denda egiten ari den promozio batzuen artean,
haren heriotzaren hogeita hamargarren urteurrena go-
goratuz.

Igela argitaletxearen es-
kutik ditugu hiru liburu-
ren itzulpenak: “Gure
etxeko kontuak”, “Arratse-
ko ahotsak” eta “Hirira do-
an bidea”. Cesare Pavese
hogeita bost urteko Ginz-
burgi postal bat idatzi
zion, erronka berezi bat
eginez: «Nahiko haur izan
dituzu dagoeneko, eta
orain ezetz idatzi nire li-
buruak baino hobea den
zerbait». Izan ere, ordura-
ko hiru haur zituen Ginz-
burgekin. Erronka horren
emaitza izan zen “Hirira
doan bidea”, 1942. urtean
ezizenpean argitaratua,
Ginzburgen senarra jar-
duera antifaxistengatik
ihesian zebilelako.

Liburu hori izan zen irakurri nuen lehenengoa. Hitzen hoztasuna, zorroz-
tasuna eta gardentasuna nabarmentzekoak dira. Hiriek ez daukate izenik,
ezta pertsonaiek abizenik ere, eta deskribapenak laburrak eta zehatzak dira,
anbiguotasunari lekurik eman gabe. Eguneroko bizitzako zeregin normalek

ez dute irakurlea aspertzen, hiri handi batek iradokitzen dituen ametsetara joan-etorrian ibiltzen da protagonista eta harreman ezberdinen kontaketa zentratzen da trama. Emakumeengan inposatutako muga sozial eta emozionalak azaltzeko egiten duen ariketak atentzioa eman zidan; narrazioaren sinpletasuna, mezu sofistikuak barneratuz, modu intelektual batean. Ezer ezkutatu gabe, arimaren araztasuna liburuaren orrietan sentitzen da. «Esaldi bakoitza zartada edo belarrondoko bat izatea nahi nuen», adierazi zuen Ginzburgek. Maisutasunez lortzen duela iruditu zait.

Sarean bueltaka nenbilela, Canok idatzitako kritika bat aurkitu nuen. Gesualdo Bufalinok bi eratako idazleak bereizten zituela esaten zuen: esku ahurra ireki eta bertan

erortzen den guztia pilatuz idazten dutenak batetik, eta esku ahurrari buelta eman eta eskura erortzen zaion guztiari irrist egiten utzi ondoren, esku gainean geratzen den apur hori beste guztia biltzeko gaitasun atzemangaitza duten maluta guxtxi batzuk soil-soilik erabiliz idazten dutenak. Sedimentazioa da lehen idazle motaren lanerako moldea; orori irrist egiten utzi eta esentzia harrapatzen saiatzea, bigarrenarena. Ginzburg bigarren multzoan zegoela aipatzen zuen.

Canok hori idatzi
zuenetik, hogeit urte
beranduago nator ni,
baina deskribapen
horrek ezin hobeto
biltzen du Ginzbur-
gek esentzia azala-
razteko duen gaita-
suna. •



Londresko Daunt Books liburu denda. GARAZI GOIA